

ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

"NABIGAZIO EGUNKARIA"

Jarduera-zk.: 8

B(t)
Bizkaia with the talent



Organizazio Erakunde parte-hartzaileak:

colaboradoras:
innobasque
Berrikuntza Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Monragon
Unibertsitatea
Goi Eskola Politet
Escuela Politécnica

ikasLAN
B i z k a i a
Biziak: Lortu, Partatu eta Prestatu. Agencia Vasca de la Innovación

HETEL

ESKO BILKANTZA
COOPERATION VASCA
HELEKIDETZA
COOPERATION VASCA

Ikaskuntza-egoera

Testuingurua:

Ikasketak aukeratzea bidaia bat balitz bezala planteatuko dugu. Bidaia horretan, ikasleak bere burua ezagutzeko eta aukerak aztertzeko fase batzuk igaro beharko ditu, erabakia hartu arte. Nabigazio-egunkaria laguntza-baliabide gisa aurkeztuko dugu. Haren helburua ez da izango galdetegi batzuei erantzutea soilik; horretaz gainera, hausnarketa orientatua eragin nahi du ikasleari erabakia hartzen laguntzeko. Horretarako, galdetegiaren bidez jasotako erantzunez gainera, ikaslearen inguruneko informazioa ere kontuan hartu beharko da.

Abiapuntua:

Zure ikasketak eta etorkizun profesionala aukeratzea misio zaila da, eta benetan da bidaia bat bezalakoa. Bidaia horretan, zenbait fase igaro beharko dituzu eta, azkenik, erabaki bat hartu beharko duzu. Bidaia horretan zehar, handikiro egin beharko duzu amets, zeure burua pixka bat hobeto ezagutu beharko duzu eta, azkenik, zenbait aukera aztertu beharko dituzu erabaki bat hartzeko prest egon arte. Nabigazio-egunkari honetan, zure bidelagun izango gara. Zure eginkizuna fase guztietatik igarotzea izango da, zure etorkizuneko ikasketei buruzko erabakia hartu arte. Ekin diezaiogun bidaiari!



Helburuak:

Norberaren gaitasunen eta interesen ezagutza bultzatzea eta erabakiak hartzeko lagungarriak diren trebetasunak garatzea.

Helburu operatiboak:

1. Ikasleetan autoezagutza sustatzea.
2. Etorkizuneko ikasketak aukeratzeari begira, erabakiak hartzeko trebetasunak garatzea.
3. Komunikaziorako, lankidetzarako eta hausnarketa kritikorako trebetasunak garatzea.

Funtsezko gaitasunak:

GAITASUN PERTSONALA, SOZIALA
ETA IKASTEN IKASTEKOA (GPSII)
HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA (HKK)
EKINTZAILTZARAKO GAITASUNA
(EG)

Deskriptore operatiboak:

GPSII3, GPSII4, HKK1, EG1, EG2.



Jardueraren deskribapena

Zabaldu zure pentsaera eta egin amets handikiro (10 minutu)

Handikiro pentsatzeko espazioa, ikasleak zerk inspiratzen dituen eta zerk gogoberotzen dituen ikusteko. Fase honetan, ikasleak amets egitera gonbidatuko ditugu, beren buruari mugarik ez jartzera.

Nola imajinatzen duzu zure burua 15 urte barru?


Lagungarri izan dakizkiekeen zenbait ideia eta galdera:

- Zer gustatuko litzaizuke zure bizitzan egotea eta zer ez? (lan egonkorra, soldata ona, etxe propioa, familia handia, enpresa propioa...)
- 25 urte barru pertsona arrakastatsua, gogobetea eta zoriontsua izan zaitez, zer gauza behar dituzu? Zure ustez, zer ofizio izango zenuke?
- Fase honetan garrantzitsua da ikasleek beren buruari mugarik ez jartzea. Ez utzi ikasleei honelako iruzkinik egiten: "nik ezingo nuke inoiz...", "ez dut uste lortuko dudarik...". Beren buruaren gaineko pertzepzio negatiboak saihestu behar dira, beren burua muga horiek gabe imajinatzea baita helburua.

Inspiratu beste pertsona arrakastatsu batzuetan

Ikasleei esango diegu haien ustez arrakasta izan duten pertsonetan jartzeko arreta. Beharbada, bideo batzuk izango dira, non pertsona horiek beren bizitzari buruz hitz egiten duten eta azaltzen duten nola iritsi ziren egoera horretara. Ikasleek halako bideoak bilatu ditzakete. TED solasaldiak ikustea iradoki diezaiekegu.

TED solasaldi inspiratzaileen adibidea

 **Bideoa:** [Keren Elazari. Hackers: el sistema inmunológico de internet](#)

Bideoa: [Jedidah Isler. De cómo me enamoré de los cuásares, los blázares y de nuestro increíble universo.](#)

Abdul-en eta Ziplin-en adibidea ere erakuts diezaiekegu. Horretarako, irudi hau proiektatuko dugu eta galdera hau egingo diegu:

Zuen ustez, zein herrialdetan garatu eta ezarri da dronen bidezko munduko lehen delivery sistema autonomoa?

1



Bideoa: [Invento asombroso: Este Drone lo cambiará todo](#)

Une egokia da beren erreferenteak nortzuk diren pentsa dezaten. Beren ustez arrakasta zer den gaiari buruz gogoeta egin daiteke. Erreferente horiek zer prestakuntza profesional izan duten ikertzeko ere eska diezaiekegu.

Inspiratu zure inguruko pertsonetan

Ikertu zure inguruan, galdetu zure ingurukoei. Identifikatu zure inguruan arrakastatsutzat jotzen dituzun pertsonak. Ikertu zer lanbide dituzten. Berrikusi STEM planetak edo lanbide-arloak pertsona arrakastatsu horien lanbideak identifikatzeko.



Aberaste-jarduera: ikasleak "balio profesionalen galdetegia" betetzera animatuko ditugu. Galdetegi hori lagungarria izango zaie beren balio pertsonalak identifikatzeko, lanbide bat aukeratzeari begira.



ERANSKINA: [Balio profesionalen galdetegia](#)

Dinamika hori banaka gauzatu ondoren, komeni da agertu diren balio garrantzitsuenak eta balio horiek STEM lanbideekin duten lotura klasean partekatzea.

Ikasleei gogoraraziko diegu oso garrantzitsua dela identifikatu dituzten hiru balioetako bat garatzeko aukera ematea beren etorkizuneko lanbideak. Beren balio pertsonalekin bat datorren lanbide bat bilatzea komeni zaie; bestela, etengabeko atsekabe-iturri bihur daiteke lana.

2

Berrikusi zure indarguneak (10 minutu)



[Baliabidea](#)

Hobeto ezagutu zeure burua (Etorlanen autoezagutzari buruzko galdetegia, ADEGI).

Galdetegi honek zure indarguneetako batzuk identifikatzen lagunduko dizu.



ERANSKINA: [Nabigazio-egunkaria](#)

Idatzi **nabigazio-egunkarian** galdetegian atera diren 4 atributu aipagarriak eta nortasun-profil horri dagozkion ezaugarriak.

Hausnarketarako galderak:

- Zure iritziz, bat dator deskribapena zure nortasunarekin?
- Zer prestakuntza-arlo gomendatzen dira zure nortasun-profilaren arabera?
- Arlo horietakoren bat interesatzen zaizu?
- Bat dator zure interesekin?

Bakoitzaren nortasun-profilaren arabera tresnak gomendatutako STEM lanbide-arloetako planetak esploratzera animatuko ditugu ikasleak.

Zer da hobekien egiten duzuna?

Zure ustez, zein irakasgaitan moldatzen zara hobekien eta zeinetan ez? Hausnartu horri buruz. 1. jarduerarekin (Nola ikusten dut neure burua?) lot daiteke.

Idatzi **nabigazio-egunkarian** zein irakasgaitan moldatzen zaren hobekien.

Galdetu zure inguruko pertsonei

Galdetu zure bizitzan erreferentziazkoak diren pertsonei ere, hala nola senideei, lagunei eta irakasleei. Haiek lagungarriak izan daitezke zure indarguneak identifikatzeko. 2. jarduerarekin (nola ikusten naute besteek) lot daiteke.

Idatzi **nabigazio-egunkarian** zure indarguneak.

Beren burua aztertu eta beren ingurukoei galdetu ondoren, ikasleek gai izan behar dute beren indarguneen zerrenda bat egiteko (gutxienez 4 indargune).

Probatu zure interesak (30 minutu)



[Baliabidea](#)

Balio okupazionalen testa (Etorlan, ADEGIren galdetegia, Hollandeko testean oinarritua).

Interes profesionaleri buruzko galdetegia

Galdetegi honen bidez zure nortasunaren beste profil bat lortuko duzu, baina oraingoan zure interesak hobeto identifikatzen lagunduko dizu (interes profesionaleri buruzko galdetegia). Azterketa horrek zure nortasunaren alderdi azpimarragarrienak erakutsiko dizkizu, eta, gainera, zure interesak oinarri hartuta, zure ikasketak orientatzen lagundu diezazuke. Idatzi **nabigazio-egunkarian** testean lortu duzun nortasun-profilari lotutako interesak.

Hausnarketarako galderak:

- Deskribapena zure nortasunarekin bat datorrela uste duzu?
- Zer prestakuntza-arlo gomendatzen dira zure nortasun-profilaren arabera?

Berriro ere, bakoitzaren nortasun-profilaren arabera tresnak gomendatutako STEM lanbide-arloetako planetak esploratzera animatuko ditugu ikasleak.

Zure zaletasunak eta interesak

Pentsatu orain zein ikasgai gustatzen zaizkizun gehien. Ez dute nahitaez izan behar hobekien moldatzen zarenak. Hausnartu zer gustatzen zaizun irakurtzea. Hausnartu, halaber, zein diren zure zaletasunak, zertan gozatzen duzun zure aisialdian. Beharbada, zure interesak identifikatzen lagunduko dizute.

Idatzi **nabigazio-egunkarian** zer interes dituzun ezagutza-arloekin eta/edo lanbide-arloekin lotuak.

Programaren gidariak zenbait adibide eman diezazkieke ikasleei, interes-arloak zehazten laguntzeko: artea, zinema, teknologia, kirola, musika, natura, animalien mundua, moda, etab.

Erabakiak hartzea (5 minutu)

Berrikusi zure nabigazio-egunkariko informazioa

Interesatzen zaizunari, zure indarguneei eta hobekien egiten duzunari buruzko informazio osatuagoa duzu. Informazio horretatik abiatuta, zure intereseekin eta indarguneeekin bat datozen lanbideak azter ditzakezu. Esploratu STEM lanbide-arloetako planetak, zure interesetara gehien hurbiltzen diren lanbideei buruzko xehetasun gehiago identifikatzeko.

4

Kontuan hartu

Azter dezakezu, halaber, zer ibilbide hartu behar den lanbide horiek ikasteko.

Gomendatzen dizugu aztertzea zer unibertsitate-gradu eta zer prestakuntza-ziklo dituzun zure lehentasunetako eta gaitasunetako batzuen arabera. Hurbileko eta ez hain hurbileko zenbait erakundetan ere esplora dezakezu, zure profiltera hobeto egokitzen diren aukerak ikusteko.

Hartu erabaki bat

Prozesuaren amaieran, ikasleak prest egon beharko luke gutxienez 2 lanbide-arloren artean erabakitzeke, eta lanbide horiek betetzeko igaro behar den prozesuaren jakitun izan beharko luke (ibilbidea, ikasketa-maila).

Une honetan, komeni da ikasleari gogoraraztea familiaren eta ikastetxeko orientatzailearen laguntza jaso dezakeela erabakia hartzeko eta ikasketetarako sarbideari buruz behar duen informazioa osatzeko.

Konpromisoak

Azkenik, ikasleak, identifikatu dituen STEM lanbideetan sakontzen jarraitzeko, hurrengo 6 hilabeteetarako konpromisoak idatziko ditu. Une horretan, ikasleek zehaztuko dute zer urrats egingo dituzten gehien interesatu zaizkien lanbideei buruzko informazio gehiago lortzeko: ikasketa-zentroak, sartzeko baldintzak, eta abar.

Komeni da ikasleen eskura jartzea FARO programako IBILBIDEEN INFOGRAFIA.

Baliabideak::

- Boligrafoak, arkatzak eta errotuladoreak.
- Koadernoak
- Ordenagailua, Internetarako konexioa.

Gauzatzeko gomendioak




Ziurtatu Interneterako konexioa dagoela, ikasleek proiektuaren plataforman sartzeko aukera izan dezaten.



Sortu ingurune errespetuzkoa eta enpatikoa. Ziurtatu ikasle guztiek sentitzen dutela interakzioetan eta eztabaidetan gainerakoek kasu egiten dietela eta baloratu egiten dituztela.



Kronograma argi bat ezartzea jardueraren fase bakoitzerako epemugekin, ikasleek prestatzeko eta idazteko denbora nahikoa dutela ziurtatuz.



Jarduera gidatzen duen pertsonak orientazio-profila izatea gomendatzen da.

Gutxi gorabeherako denbora

50 minutu

Ebaluatzeko errubrika

Irizpideak	Bikain 5	Ongi 4	Onargarri 3	Nahikoa 2	Hasiera 1
Autoezagutza	Bere interesak, trebetasuna k eta aspirazioak sakonki ulertzen dituela erakusten du.	Bere interesak eta trebetasuna k ondo ulertzen dituela erakusten du.	Bere interesen eta trebetasune n oinarrizko ulermena erakusten du.	Bere interesak eta trebetasuna k ulertzen hasi da.	Lehen urratsak egiten ari da bere interesak eta trebetasuna k identifikatze ko.
Erabakiak hartzea	Aukerak sakonki eta kritikoki aztertzen ditu, eta segurtasune z hautatzen du.	Aukerak kritikoki aztertzen ditu, baina ez du erabateko segurtasune z hautatzen.	Aukerak behar bezala aztertzen ditu, eta zalantzati agertzen da hautatzerak oan.	Aukerak aztertze ko zailtasunak erakusten ditu.	Ez du erakusten azterketarak o ahalmenik , ezta hausnarketa rako gaitasunik ere aukerak hautatze an.

ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

"NABIGAZIO EGUNKARIA"

Jarduera-zk.: 8

B(t)
Bizkaia with the talent



OrganizazioErakunde parte-hartzaileak:

colaboradoras:
innobasque
Berrikuntzaen Euskel Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Deusto
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Monragon
Unibertsitatea
Goi Eskola Politet
Escuela Politécnica

ikasLAN
B i z k a i a
Bilaketa, Lanbide, Heziketa eta Enpresa Politikaren Arloko
Aholkari eta Berrikuntza Zentroa

HETEL

ESKO BILKANTZA
COOPERATIVA VASCA
HEZIKETA BILKA
UNIBERTSITATEA DE BILBAO



ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

ERANSKINAK

B(t)
Bizkaia with the talent

Balio profesionalen galdetegia

Dinamika hau proposatuko dugu:

Irakurri arretaz balio profesionalen zerrenda hau (beste balioen bat gehitu dezakezu, hala nahi izanez gero). Ondoren, inguratu zure **lehentasunezko hiru balioak** adierazten dituzten zenbakiak:

1. **Dirua irabaztea:** premia pertsonalak behar bezala asetzeko behar dena baino diru gehiago edukitzea.
2. **Sormena:** lehen ez zeuden gauza berriak eta originalak asmatzea edo irudikatzea. Haiek gauzatzea.
3. **Altruismoa:** beste pertsoneri hobetzen laguntzea, eta laguntza, zaintza eta babesa eskaintzea. Helburua: besteei zerbait lortzen laguntzea.
4. **Erosotasuna:** ongizatea lortzea espazioa eta denbora erabiliz eta gozatu; eroso eta gustura sentitzea. Lehiaren kontrako balioa da.
5. **Segurtasuna:** premiak beteak izatea eta arriskurik ez hartzea. Lan finkoa, egonkorra, langabezia- edo kaleratze-arriskurik gabekoa; esate baterako, funtzionario publikoa.
6. **Zuzendaritza:** beste pertsonak gidatzen errealizatzea.
7. **Prestigioa:** merituengatik aintzatetsia izatea, lan-eremu batean onena edo oso ona izatearen fama edukitzea, edo ospea desiratzea, hau da, norberaren eta arrotzen aurrean prestigioa eduki nahi izatea.
8. **Independentzia:** autonomiaz lan egitea, norberaren ideiei eta sinesmenei jarraikiz, eta ez besteen mende.
9. **Sozialitatea:** jende askorekin harremanak izatea, jendearekin lan egitea, lagun asko izatea.
10. **Aniztasuna:** askotariko jarduerak gauzatzea. Errutinaren kontrako. Askotariko lanak, betiere aldaketak, abenturak eta nolabaiteko arriskua dakartzatenak.
11. **Egikaritzea:** aginduak betetzearen gogobetetasuna, norbaiten zuzendaritzapean jardutea, obeditzea, antzeko zereginak betetzea inolako erantzukizun pertsonalik gabe.
12. **Errealizazioa:** ondo egindako lanagatiko gogobetetasuna lortzea, errealizazio pertsonala, dela zerbait sortuz edo konponduz dela jendea artatuz, etab. Egiten denarekin pertsonalki gozatzea. Balio hori, berez, beste guztiek barne hartu beharko lukete. "Profesionaltasuna" da.
13. **Aurkikuntza:** arazoak konpontzea, ikertzea, arakatzea, bilatzea, nork bere buruari beti galderak egitea.
14. **Lehiakortasuna:** balio profesional gisa borrokarako eta "lehiakideak" gainditzeko espirtua izatea esan nahi du. Antzeko lanak egiten dituzten gainerakoak baino hobea izatea.
15.



**NIRE NORTASUNAREN
EZAUGARRI AIPAGARRIAK**



**HOBEKIEN MOLDATZEN NAIZEN
IRAKASGAIK**



**NIRE INDARGUNEAK, NIRE
INGURUNEAREN ARABERA**



**NIRE INTERES PROFESIONALAK,
NIRE NORTASUNAREN ARABERA**



**NIRE ZALETASUNAK ETA
INTERESAK**



ERABAKIAK HARTZEA



HURRENGO 6 HILABETEETARAKO KONPROMISOAK

